

# ERAGI KETAK

## Abalak

*Bezeroak hirugarrenei aurkez diezaiekeen bermea da.*

Bezeroak hirugarrenei aurkez diezaiekeen bermea da. Horren arabera, Laboral Kutxak bere gain hartzen du bezero abalatuak hartutako betebeharrak guztien erantzukizuna, horrek kontratua bete ezean.

Ezaugarriak

Laboral Kutxako bezeroek hainbat abal mota dituzte eskura:

- Abal teknikoak. Laboral Kutxak bere gain hartzen du bezeroaren erantzukizuna, horrek lehiaketa, enkante, obra-egikaritzea edo hornidura-kontratuetan (normalean erakunde publikoen aurrean) hartutako konpromisoak bete ezean.
- Abal ekonomikoak. Bezeroak, diru kopuru bat epe jakin batean ordaindu behar duenean, Laboral Kutxaren abala eskura dezake. Abal ekonomikoak bi motatakoak izan daitezke:
  - Komertzialak: Salerosketa komertzialek eragindako kopuruen ordainketa abalatzeko da (adibidez, etxebizitza edo autoa erostean).
  - Finantzarioak. Erakundeak bere gain hartzen du bere bezeroari beste erakunde batzuek emandako kreditu edo maileguak ordaintzeko erantzukizuna.

*Laboral Kutxaren iritzia*

*"Hirugarrenei aurkez dakiekeen bermerik onena da."*

